

SARRERA/ENTRADA	 2019 IRA. SEP. 20
	ZK/N.º 228
	ESP/EXP 11/C/02/78

Agiri-mota / Tipo de documento: **Mozioa / Moción**
Data / Fecha: 2019-09-20
Nori zuzendua / Dirigido a: BNetako Mahaiari, / La Mesa de las JJGG de Gipuzkoa
Aurkezlea / Proponente: [Amaia Azkue]
Batzarkide taldea / Grupo jüntero: EH Bildu

IZENBURUA / TÍTULO

Hondarribiko alardearen inguruan egindako interpelazioaren ondoren aurkeztutako mozioa

ZIOA eta/edo AURREKARIAK / MOTIVACIÓN y/o ANTECEDENTES

Irailaren 18ko Batzar Nagusien osoko bilkuran Markel Olano Diputatu Nagusiak Hondarribiko alardearen inguruan egindako interpelazioari emandako erantzunaren ondoren, EH Bildu batzarkide taldeak honako mozioa aurkeztu nahi du.

Talde honek positiboki baloratzen ditu Diputazioak egindako ahalegin batzuk. Besteak beste, elkarrizketa prozesua martxan jartzea, konponbidea lortzeko bitartekariak jartzea... Positibotzat jotzen dugu, ere, Hondarribiko Udaleko talde politiko guztiek sinatutako adierazpen instituzionala.

Baina ez dugu ulertzen adostasunerako prozesua eten zenean, Diputazioak izandako isiltasuna eta ekimen zehatz falta.

Markel Olano Diputatu Nagusiak emandako azalpenetan behin eta berriz hitz egin zuen gai honi buruz dauden bi ikuspegi ezberdinetaz, eta honentzako irtenbidea dela bi ikuspegi hauen arteko adostuna bilatzea. Behin eta berriz adierazi zuen Hondarribikoa elkarbizitza arazo bat dela.

Emakumeek libre eta benetako berdintasunarekin festetan, beste edozein alorretan bezala, parte hartzeko eskubideari buruz ez zuen aipamenik egin. Eta hau onartezina da, emakumeen eskubideak baitira eztabaida honen erdigunean jarri beharrekoak.

Edozein agintariren betebeharra da herritar guztien eskubideak bermatzea. Eta Hondarribiko alardean ez da horrelakorik gertatzen.

Azken hamarkadetan gisa honetako egoerak gairitu egin dira Gipuzkoako herri ia denetan. Gehienetan, herritarren bultzadaz eta instituzioen inplikazioari esker. Hondarribin, eskertzekoa da Jaizkibel konpainiaren iniziatibaren eta jarrera; Udalarena, aldiz, guztiz onartezina da, ez duelako emakumeek alardean berdintasunean parte hartzeko eskubidearen alde irmoki egin.


Diputazioa berak ere ez du asko lagundu, jarrera epela erakutsi duelako. Parekidetasunaren alde egin dutenei ez die inolako errekonozimendurik egin.


Ezinbestekoa da gipuzkoarron ordezkari itzulia instituzional honek jarrera determinantea erakustea gai honetan, emakume gipuzkoar batzuren eskubideak behin eta berriz urratzen ari direlako.



MOZIOA / MOTIÓN

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Hondarribiko alardearen kasuan konponbidea lortzeko elkarrizketaren aldeko apustua egiten dute, beti ere elkarrizketaren erdigunean emakumeen eskubideak jarritz; kasu honetan, alardean emakumeak berdintasunean eta normaltasun osoz parte hartzeko eskubidea, parekidetasuna bermatuz.
2. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote Hondarribiko alardearen arazoa konpontzeko eta elkarrizketa bideratzeko beharrezko baliabide ekonomiko eta pertsonalak jar ditzala.
3. Gipuzkoako Batzar Nagusiek aitortzen dute Jaizkibel Konpainiak berdintasuneran alde urte luzez egindako lana; beste horrenbeste egiteko eskatzen die Gipuzkoako Diputazioari eta Hondarribiko Udalari, eta babes hori publikoki egin dezatela.
4. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Hondarribiko Udalari eskatzen diote, behingoz arautu dezala alarde publiko parekide bakarra.


Proposatzailearen sinadura / Firma del proponente
[Amaia Azkue]
EH BILDU BATZARKIDE TALDEA


Bozeramailearen oniritzia / Visto bueno portavoz
Juan Karlos Izagirre
EH BILDU BATZARKIDE TALDEA